



14. JOSE ANTONIO AGOTE SARIA

OEE euskara osasun-arloan sustatu eta bultzatzen duen elkarte da, euskararen erabilerari eutsiz, irakaskuntzan, heziketan, eta lan-zentroetan, arloko profesionalen artean erabilera bultzatuz eta indartuz, osasunari buruz euskaraz idatzitako aldizkari eta argitalpenen sorrera lagunduz, helburu eta jarduera horiei dagozkien ekitaldiak (hitzaldiak, mahai-inguruak, etab.) antolatuz, eta era guztietako erakunde, elkarte, entitate edo partikularrekin lankidetzan arituz.

Helburu horien barruan, OEEk Agote Saria, osasunarekin lotutako ikasgai ezberdinen euskarazko testuen sormena eta argitalpena bultzatzeko sortu zuen. Deialdi honetan, eta aurrerantzean ere hala izango da, **LKS**ren eta **Mondragon Health**ren babes ekonomikoa jaso du **OEE**k eta hiruron arteko lankidetzak da, beraz, antolatu dugun sariketa.

Jose Antonio Agote Jemein gaztetatik kezkatu zuen euskarak. Osasun-arloan euskara bultzatzeko eta garatzeko ahaleginak egin zituen, bai pazienteekin erabiliz, bai zenbait dokumentu kliniko idatziz, etab. Osasungo Euskalduntzeko Erakundeko bazkide izan zen bere sorreratik, ekintza guztietan parte hartu, beraien antolakuntzan lagundu eta inguruko profesionalak erakarriz. Gaixo egon arren, ez zuen oztoporik izan 1999an Donostian "Genetika eta Osasuna" izenburuarekin egin ziren jardunaldien antolatzaile-lanetan ibiltzeko. Horregatik OEEk bere omenez sortu zuen sariketa hau, bere ametsak lortzen saiatzeko lanean jarraitzeko.

OINARRIAK

lanei buruzkoak

Euskaraz idatziak izan beharko dute eta Euskaltzaindiaren arauak errespetatuko dira.

Egileak bat edo gehiago izan daitezke.

Lanak Orijinalak eta argitaratu gabeak izan behar dute. Puntu honekin bat ez datozen lanek sortu ditzaketen arazoan ardura egileena bakarrik izango da. OEEk ez du bere gain hartuko inolako erantzukizunik.

Gaur egun osasun-arloko ikasketa unibertsitarioetan ikasi beharreko ikasgai baten egitarau ofizialak jarraitzen dituzten lanek lehentasuna izango dute. Beraz ahal bada lanek ikasgai baten egitaraua osoa jasoko dute.

Lehenik lan osoaren proiektu bat aurkeztuko da eta saria lortuz gero 12 hilabeteko epean lan osoa aurkeztu beharko da.

Proiektuen aurkezpenari buruzkoak

DIN A4 orrietan, alde batetik idatzita eta lerroen artean bi tarte utziz aurkeztuko dira. Times Roman 12.puntua letra moldearekin idatziko dira.

Irudiak, grafikoak eta argazkiak bukaeran jarriko dira zenbaki arabiarrekin izendatuta.

Bibliografia kontuan hartuko da.

Proiektuaren barne sartuko dira lan osoak izango lituzkeen gai guztien zerrenda sailkatua eta gai bati dagokion testu osoa edo zati bat. Gutxienez 15 orri izango ditu eta gehienez 40 (irudiak eta grafikoak kontatu gabe).

Lanak postaz igorriko dira 2016ko abenduaren 31 baino lehen azpian zehazten den helbidera eta bidaltzen den sobreak honakoa edukiko du:

- Hiru ale idatzi. Hauen amaieran izengoiti bat azalduko da.
- Idatziz aurkeztutakoa artxibo informatiko batean (Word programa erabiliz edo PDF formatuan). Artxibo informatikoa CD batean edo USB batean egongo da sobre barruan.
- Kartazal itxi bat. Kanpoaldean izengoitia besterik ez da idatziko. Kartazal horren barruan sartuko dira egileen izen-deiturak, bizilekua, telefonoa eta e-posta.
- Anonimotasuna zaintzeko, lanak ez dira posta elektronikoz bidaliko.

Epaimahaiari buruzkoak

Osasungoa Euskalduntzeko Erakundeak izendatuko du eta gutxienez hiru lagunek osatuko dute. Babesleek epaimahaikide bat izendatzeko eskubidea izango dute. Aurkezten diren lanen egileek ezingo dute inola ere epaimahaikide izan.

Erabakia OEEren biltzarrean jakinaraziko da. Horretarako epaimahaia irabazlearekin harremanetan jarriko da.

Erabakiaren kontrako errekurtsorik ez da onartuko.

Sariaren diru-kopuruari buruzkoak

Saria 2.400 eurokoa izango da. Kopuruaren erdia irabazlea jakinaraztearekin batera emango da eta beste erdia lan osoa aurkezten denean.

Lanen argitalpenari buruzkoak

OEEk ahalegin berezia egingo du lan osoa aurkezten denean liburu bezala argitaratua izan dadin edo PDF formatuan interneten eskura egon dadin. Bestalde argitaletxeekin egin beharreko bitartekari lanak ere erraztuko ditu.

Lanen jabetzea egileena izango da. Edozein argitalpenean sari honen aipamen zehatza egin beharko da.

Proiektuak edo lanen aurrerapenak bidaltzeko helbidea:

Iberba - Jose Antonio Agote Saria

Helbidea: Ugaskobidea, 3, behea - 48014 - Deustu - Bizkaia

Telefonoa: 94 400 11 33

e-posta: oeegunea.eus (parte hartuko dela esateko, ez materiala bidaltzeko)